

ESKU-HUSKA. T5ko lau t'erdiko txapelketa Gasteizko frontoian jokatu da urriaren 27an

Ogeta, pilotaren gune


Asegarceko eta Gasteizko Udalaren ordezkariak akordio batera iritsi daitezke epe labur batean

Leire Montes | **DONOSTIA**

Gasteiz eta Ogeta frontoia pilotaren gune garrantzitsuenak izan daitezke denbora gutxi barru. Hori da behintzat batzuen asmoa: Asegarce enpresa eta Gasteizko Udalaren ordezkariak, hain zuzen ere, horretarako elkartu dira.

Denboraldiko final nagusiak Ogetan jokatzeko nahi du Asegarce. Horrela, Atano III.ak finalen bat galduko luke Gasteizko frontoien mesederako. Izan ere, Atano III. arekin batera, Ogeta da horrelako hitzorduetan biltzen den jende kopuru handia har dezakeen frontoi bakarra.

Bai Pedro Garcia Asegarceko kontseiluaren ordezkariak, eta baita Miguel Angel Etxeberria Gasteizko alkateordeak ere, negoziaketak «bide onetik» doazela adierazi zuten. Etxeberriak, gainera, proposamen hori Gasteizentzat eta Araba guztientzat «ohore handia» dela azpimarratu zuen.



JOSEBA OLALDE
Patxi Eugi, 1998ko lau t'erdiko finalerako material hautaketan, Gasteizko Ogeta frontoian.

Oraingoz, asteartean aurkeztu zen III. T5ko lau t'erdiko txapelketaren finala Gasteizko Ogetan jokatu da, urriaren 27an, hain zuzen ere. Larunba-

tean hasiko den torneo honetan Asegarceko 8 pilotarien jokoak ikusi ahal izango da.

Txapelketa honekin, gainera, T5k bere emanaldia bikoiz-

tu egingo du. Orain arte Euskal Herrian eta Errioxan ikusten zen *Fronton* pilota saioa Gaztela-Leonen ere ikusi ahal izango dute.

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Julian Retegik ez du Valentzian jokatu

Retegi ez da azkenean Valentzian jokatzeko den Euskal Herria eta Valentziaren arteko txapelketan izango. Dena den, baliteke bertara joatea omenaldi bat jasotzera. Arretxe, aldiz, Valentzian izango da. Urriaren 28an jokatu du Irigoienekin Cervera eta Nuñezen aurka.

JAIALDIAK

GAURKO PARTIDUAK

GALARRETA. 16:00.

Zalakain-Astibia / Matxin III.a-Gaztelu.
Ezkurra-Auzmendi / Zeberio II.a-Lizaso.
Bitoria-Etxabe / Iñigo-Aizpuru.
Zeberio I.a-Mendizabal /
Lezea-J.Etxeberria.

BILBO. 17:00.

Urkia-Fernando / Santxez-Beldarrain.
Insausti-Garma / Iriondo-Rekalde.
Unda I.a-Torre / Daniel-Garrido.

BORDELE. 19:00.

Muskarditz-J.C.Dermit / Karrikat-Itoitz.
Lafitte-Biscouby / Ibarola-Martiarena.

BIHARKO PARTIDUAK

AIZARNAZABAL. 22:45. (ETB1).

Titin III.a-Imaz / Goñi II.a-Elkoro.
Badiola III.a-Taberna /
Baleztena-Apeztegia.

DONIBANE LOHIZUNE. 21:00.

Capellan-Eulate / Gonzalez-Zezeaga.



KILOMETROAK 01



URRIAK 7 GARENA GARELA

andramendi. beasaingo ikastola

Kilometroak ikastolen festa
Soka ez da eten

Euskaraz urratsez urrats, oinez eta ibilaldirik luzeenetan kilometroak egunez egun egiten dira



BEASAIN

